2. Hilabeteko Iruzkina
2008ko Martxoa

Nota Mensual nº 2
Marzo de 2008



## Gipuzkoatik bi proiektu aurkeztu dira Europako kofinantzaziorako

- **Jaizkibia S.A. elkarte publikoak Pasaialderako jarduera proposamen bat aurkeztu du, Europako Fondoen Urban Hiri Ekimenaren esparruan.**

Herrerako gunea, Hospitalillo-ko kaia eta Trintxerpe eta Pasai San Pedroko kaiak biziberritzea da, hain zuzen ere, proposamen honen xedea. Biziberritu nahi den guneak 11,4 hektareako azalera du guztira.

Zehazki, proposamen honen helburu nagusia hirigunea eraldatu eta bertan bizi den biztanleriaren bizi kalitatea hobetzea da. Gaur egun, fabrika-hondarrak, birkokatzeko zain dauden industria-jarduerak eta kokapen eta diseinu berri baten beharrean dagoen loja-arrandegi bat daude eremu honetan.

2008-2013 aldirako aurreikusi diren jardueren kostua 21,6 milioi eurokoa da. Dena den, Europar Batasunera egin den laguntza eskaera 7,8 milioi eurokoa izan da. Gainontzeko zenbatekoa lurralde- eta udal-administrazioek eta Jaizkibia elkarteak emango dute.

Proposamenaren jarduera-ildo nagusiak, hiri- eta ingurumen-kalitatearen hobekuntzan eta gizarte- eta ekonomia-jardueretan oinarritzen dira, eta, batez ere, Herrerako gunearen biziberritzean.

Ekonomia eta Ogasun Ministerioak pasa den urtarrilaren amaieran aurkeztu zuen proposamen hau, Europar Batasunak Estatu espainiarrerako onartu zuen, eta FEDER fondoetatik laguntza jasotzen duen, 2007-2013 aldirako Erreferentzia Marko Estrategikoaren Udal- eta Hiri-garapenerako ardatzaren esparruan kokatzen da.

Jaizkibia S.A. elkartearen kapitala %100 publikoa da. Zehazki, Estatuko Administrazio Orokorra (%25), Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa (%25), Gipuzkoako Foru Administrazioa (%25) eta zazpi udalerrik osaturiko Udal Administrazioa (%25) dira elkarte honetako partaide. Jaizkibiaren helburu nagusienetako bat, hain zuzen ere, Pasaiako Badia biziberritzea da.

## Presentados dos proyectos desde Gipuzkoa para la cofinanciación europea

- **La sociedad pública Jaizkibia S.A. ha presentado una propuesta de actuación para la zona de Pasaialdea, para su cofinanciación en la Iniciativa Urbana (Urban) de los Fondos Europeos.**

La propuesta se dirige a la regeneración de las zonas de la Herrera, el muelle de Hospitalillo y los muelles de Trintxerpe y Pasajes San Pedro, con una superficie de 11,4 hectáreas.

Los objetivos que se persiguen a través de la propuesta son la mejora de la calidad de vida de la población residente, mediante la transformación y mejora urbana de dicha área. En la actualidad, el área está ocupada por un conjunto de ruinas fabriles, actividades industriales pendientes de reubicación y una lonja-pescadería necesitada de nueva ubicación y diseño.

El coste total de las actuaciones previstas en la propuesta para el periodo 2008-2013 asciende a 21, 6 millones de euros, solicitándose ayudas comunitarias por un importe de 7,8 millones de euros. La cuantía restante será aportada por las administraciones regional y local y por la sociedad Jaizkibia.

Los dos grandes ejes de actuación de la propuesta se refieren a la mejora de la calidad urbana y del medio ambiente y a acciones sociales y económicas, destacando entre ellas la regeneración del área de la Herrera.

Esta propuesta, presentada a finales de enero al Ministerio de Economía y Hacienda, se enmarca en el eje de Desarrollo local y urbano del Marco Estratégico Nacional de Referencia 2007-2013, aprobado por la Unión Europea para el Estado Español, cofinanciado por el fondo FEDER.

Jaizkibia S.A. es una sociedad de capital 100% publico participada por la Administración General del Estado (25%), la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi (25%), la Administración Foral de Gipuzkoa (25%) y la Administración local (25%), integrada por siete municipios. Entre los objetivos principales de la sociedad se encuentra la regeneración de la bahía de Pasajes.

## Pasaialdea

## Zona de Pasaialdea



- **Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak, ekintzailetzaren esparruan berrikuntza sustatzeko helburua duen proiektu bat aurkeztu du, 2007-2013 aldirako Europako Gizarte Fondoen esparruan**

Lanbideratze eta gizarteratze arazoak dituzten pertsonen artean ekintzailetza prozesuak erraztea da Saiatu proiektuaren helburu nagusia.

Horretarako, beharrezkoa izango da negozio-ideia bat aurrera eraman eta enpresa ideia honen bideragarritasuna ziurtatzea ahalbidetuko duen enpresa azpiegitura berritzaile bat garatzea.

Gipuzkoako heldu, haur eta minusbaliatuei zuzenduriko zerbitzuen merkatuak eskaintzen dituen aukeren azterketatik abiatuz, ekimen honek, prestakuntza prozesu berritzaile eta berariazkoak garatzea proposatzen du.

Proiektu hau Herri Administrazioen Ministerioari aurkeztu zaio, 1,2 milioi euroko aurrekontuarekin. Ekimena, 2007-2013 aldirako Europako Gizarte Fondoak (FSE) eskaintzen dituen laguntzen esparruan kokatzen da, eta zehazki, Egokitzapen eta Enplegu Sustapenerako Programa Operatiboaren esparruan.

- **El Departamento de Política Social de la Diputación Foral de Gipuzkoa ha presentado para su financiación por el Fondo Social Europeo 2007-2013 un proyecto de innovación en emprendizaje.**

El proyecto, denominado Saiatu, tiene como objetivo fundamental el de facilitar los procesos de emprendizaje entre las personas pertenecientes a colectivos con especiales problemas de inserción socio-laboral.

Para ello se propone la creación de una estructura empresarial innovadora que les permita plantearse traccionar una idea de negocio y, asimismo, la posibilidad de testar la viabilidad de su idea empresarial antes de constituirse formalmente, dotándoles de los recursos necesarios a tal efecto.

Y a partir del análisis y estudio de las oportunidades del mercado de prestación de servicios a personas mayores, niños y disminuidos en Gipuzkoa, contempla el diseño, elaboración y puesta en marcha de procesos formativos innovadores y específicos.

El proyecto, con un coste total de 1,2 millones de euros ha sido presentado al Ministerio de Administraciones Públicas en el marco de las ayudas del Fondo Social Europeo (FSE) 2007-2013, Programa Operativo Adaptabilidad y Empleo.